

LAUDIO UDALA

Laudio Udalak 2018ko abenduaren 18an emandako 2772 Dekretuaren, Laudio Ikastolari 2018rako eman zaion diru-laguntza izendunari buruzkoaren laburpena.

Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitara ematen da. Horren testu osoa kontsulta daiteke Diru-laguntzen Nazioko Datu Basean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

Lehenengoa. Onuraduna.

Laudio Ikastola

Bigarrena. Xedea.

2018rako udal aurrekontuan aurreikusitako izendun diru-laguntza ematea, Laudio Ikastola zentroaren funtzionamendu eta mantentze-lanetarako, halakotzat joko direlarik, gastu arruntak, beste erakunde publikoek diru-laguntzarik eman gabeko irakasleen eta langile garbitzaileen gastuak.

Hirugarrena. Hitzarmen arautzailea.

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko maiatzaren 22 egunean egindako bileran hartutako erabakiz onartutakoa, zeinetan onartu zen Laudio Udalaren eta Laudio Ikastolaren arteko 2015-2018 aldirako lankidetzaren hitzarmen berria.

Laugarrena. Zenbatekoa.

Diru-laguntza honen zuzkidura eta kopurua da 54.484,00 eurokoa.

Bosgarrena. Diru-laguntzaren justifikaziorako epe-muga.

Diru-laguntza eman den urte naturala amaitu osteko 8 hilabete igarota bukatuko da.

Laudio, 2019ko urtarrilak 24a.

Alkate – udalburua, Jon Iñaki Urkixo Orueta.